

# UPV/EHU-KO IKASLEEN V. BILTZARRA

## NIRE GRADU AMAIERAKO LANAK (GrAL) MUNDUA ALDATZEKO BALIO DU 2022

### Gradu Amaierako Lanaren Izenburua (GrAL)

LANA: Euskal ardién artileaz eginiko alfonbra diseinuak sortzean

### Egilea

Sara Madrazo Iturbe

### Gradua

Diseinua eta sorkuntza

### Zein Ekarpen egiten die GIHei (Garapen Iraunkorreko Helburuei)

12. Ekoizpen eta kontsumo arduratsua

### Laburpena

Zuntz naturalez eginiko materialak oso urriak dira gure egunerokotasunean eta lehengai hauetako batzuen sorkuntza etenezina da zenbait kasutan. Artzainek urtean behin ala bitan moztu behar diete ilea bere ardiei, nahitaezko praktika bat da. Ardiei ilea hazten zaie eta hau ezin da eten, artilea sortu eta sortu gabiltza Euskal Herrian eta ez diogu erabilerarik ematen. Hondakinetan amaitzen du. Proiektu honen helburua hondakintzat dugun euskal ardién artile hori egunerokotasunean erabili daitekeen produktu baten bidez gizarteratzean datza, produktu hau egitean erabilitako material guztiak jasangarriak direla konprobatu eta lehengai honek gure lanak ekoizteko eskaintzen dizkigun aukerak ikertzea. Tradizionalki ehungintzarako erabilitako zuntza izanik, honek eskaintzen dizkigun ezaugarriak ikertu eta ehun produktu bat egitea da idea: Alfonbra bat. Produktu hau egiteko Errumanian egin dudana Erasmus+ bidaian ehunen inguruan ikasitako jakintzak aplikatu nahi izan ditut, erabili daitezkeen teknika desberdinak ikertu eta berau gauzatzeko kontestura egokitzen dena hautatu. Alfonbren alderdi plastiko-artistikoak eskaintzen dituen aukerak behatu eta hauetaz baliatuz emaitza desberdin bat egiten saiatu naiz.

### 2030 Agendaren GIH Ekarpenak

Euskal Herrian ekoizpen etenezina duen, eta ia erabilerarik ematen ez zaion, lehengai baten aukeren berri ematen du nire proiektuak; Artileraren arazoaren berri. Berarekin eginiko produktuen ekoizpenerako beharrezkoak diren pausuak behatu eta hondakintzat dugun lehengai honek aintzinean zituen erabilerak plazaratzen ditu, irakurriko duen ororen eskuetan



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



berau erabiliz egin dudan sormen prozesutik ikasi dudan guztia utziz eta proiektu jasangarri berrien sorkuntzarako ate berriak irekiz.